



## Hezkuntza Proiektuko atala: **BALIOAK**

HERRI AMETSA Ikastola Guraso Koop.E.

Guardaplata 28 - 20016 Donostia

Tfn-943 39 35 20 / 39 24 21

Fax-943 40 40 90

[herriam@ikastola.net](mailto:herriam@ikastola.net)

[www.herriametsa.com](http://www.herriametsa.com)



### 4.2.- BALIOAK

Hezkuntza integrala garatzeko, Herri Ametsa Ikastolak edukiak ez ezik, balioak, jokabideak, jarrerak etab. ere kontuan izango ditu haur bakoitzaren izate eta nortasuna eratzen joan dadin.

Balioak atal hauetan sailkatzen ditugu:

#### 4.2.1.- Ezagutza eta adimen garapena.

- Lan diziplinara ohitu, horretarako adimen-lanaren balorazio positiboa bultzatu.
- Ikasten irakatsiz, ikasteko teknikak bideratu.
- Teknika eta baliabide berrietan eguneratu.
- Adimen faktore desberdinak garatuz metodo zientifikoaren oinarriak jarri.
- Bakarkako nahiz taldeko lanetarako beharrezkoak diren autonomia eta partaidetasunaren jabetza landu.
- Errealitateari kritikoki begiratzen irakatsi, gertakizunak behatu, aztertu eta arazoak gainditzea norberaren egitekoa dela ulertarazi eta horretara bultzatu.
- Ikasle orori dituen adimen-mugak onartzen eta norberaren gaitasunak garatzen lagundu.
- Kultur eta jakintza –zaletasuna sortu.

#### 4.2.2.- Balio estetikoaren arloa.

Arlo honen helburua sentsibiltatea eta sormena garatzea denez, ondoko esparru hauek ere jorratuko ditu Herri Ametsa Ikastolako hezkuntzak:

- Edozein arte adierazpen jasotzeko sentsibiltate estetikoa landu, eta norberarenak espresa ahal izateko oinarriak jarri.
- Gorputz oreka edota hezkuntza fisikoa egoki landu. Norbere soinen eta osasunaren ardurarako ezaupideak eman eta ohitura egokiak landu (elikadura, higiena...)
- Aisialdia egoki eta askatasunez erabili ahal izateko, zenbait zaletasun bultzatu: kirola, musika, irakurketa...

#### 4.2.3.- Balio etikoak, gizartekoitasuna eta balore sozialen arloa.

Arlo honen helburua Ikastolan nahiz kanpoan ikaslea askatasunez eta zuzentasunez

hezi eta egoki gizarteratzeko giro eta bitartekoak eskaintzea da. Hori dela eta, Herri Ametsa Ikastola ondoko hauetan saiatzen da:

- Ikaskide, irakasle, zaintzaile, monitore, guraso eta lagunarteko nahiz beste edozeinekiko balioak ( laguntasuna, errespetua, tolerantzia eta egiazaletasuna) aintzakotzat hartu eta elkar bizitzan lortzen.
- Intsolidaridade, zapalkuntza, biolentzia, injustizia, kontsumismoa eta beste hainbat balioekiko kritiko izaten, bakoitza ahal duen neurrian aldatzen ahalegin dadin.



## Hezkuntza Proiektuko atala: **BALIOAK**

HERRI AMETSA Ikastola Guraso Koop.E.

Guardaplata 28 - 20016 Donostia

Tfn-943 39 35 20 / 39 24 21

Fax-943 40 40 90

[herriam@ikastola.net](mailto:herriam@ikastola.net)

[www.herriametsa.com](http://www.herriametsa.com)



- Norberak duen askatasun eskubidearen aurrean, norbanakoa mugatzen jakin, eta, era berean, inguruko ororen askatasunarekiko jokabide arduratsuak lantzen.
- Kontzientzia-askatasuna oinarrizko eskubidetzat hartuz, joera politiko anitzak onartuz, elkarri ideia politikoak agertzeko eta errespetuz defendatzeko eskubidea bermatzen.
- Kontzientzia-askatasuna oinarrizko eskubidetzat hartuz, erlijio-gaia pluralismo printzipioaren arabera egituratzen.
- Gure gizartea ezagutzeko erlijioak duen garrantziaz jabeturik, posible den maila guztietan erlijio-kulturaren gaia gure curriculumetan txertatzen.
- Jokabide konpetitiboak ahal den mailan ahulduz, elkar laguntzan hezi eta elkarbizitza baketsurako bidea jorratzen.
- Euskaldun hiritar izateak eskatzen duen Euskal Herriarekiko begirune eta erantzukizunez bizitzen eta jokatzeko.
- Koedukazioan hezten, hau da, neska eta mutilak eskubide eta baldintza berberetara ohitu eta elkarren arteko errespetu jarrerak ziurtatzen.
- Gizarte aldakor honetan sortzen diren balio berrien aurrean, hausnarketa irekia eta kritikoa sustatzen, jarrera baikorrak bultzatzeko.